

1. Balorezko proposamena:

Normalean enpresa bat irekitzeko garaian, aurrez existitzen ez diren produktuak edo zerbitzuak ematen saiatzen dira. Gure kasuan lehendik existitzen den zerbitzu bat emango dugu baino zerbitzu ezberdinen batura bat eginez. Gure enpresa ez da pertsonen adin zehatz batean zentratuta egongo, adin guztietako pertsoneri ematen saiatuko gara, hori izango baita beste masajista enpresetatik bereiztuko gaituena. Bezeroak zarauztarrak eta ezagunak izanik, gure konfiantza guztia emango diegu.

Beste enpresen zerbitzu berdinak prezioa baxuetan ematen saiatuko gara denen onura bilatuz eta gainera, 3X2ko bonoak emango dizkiegu bezeroentzat errazagoa izan dadin guregana etortzea. Gainera deskontu ezberdinak egiten saiatuko gara, hori enpresa aurrera doan bezala joango gara zehazten eta pertsona batek masaje askoren beharrean baldin badago, deskontu ezberdinak egiten saiatuko gara bezeroarentzat errazagoa izan dadin. Masajeak emateko garaian, bezeroak mina duten giharretan zentratuko gara, hauen beharrak ongi asetzeko asmoz eta guregana etortzen jarrai dezaten.

Autopistatik gertu gaudenez irisgarritasuna erraza izango da, ez dute gora behera haundirik izango guregana iristeko eta hori gutxi balitz, gainera aparkatzeko ere leku aproposa dugu gure enpresa ondoan, beraz ez dute aparkaleku bila ibili beharko.

Saiatuko gara jendeari ez itxaronarazten, alegia, ez gara jendea hartu eta hartu arituko gero bakoitzaren ordurako ez bara ailegatuko. Horretarako zita aldeztatik hartu beharko da eta guk ondo kalkulatu beharko dugu bezeroari ez itxaronarazteko.